

6. GAIA. Ezkontzak

6.1- Ezkontzen neurketak

6.2- Ezkontzen eragileak eta ondorioak

6.1- Ezkontzen neurketak

- Ezkontza Tasa Gordina (ETG)
- Ezkontza Tasa Orokorra (ETO)
- Ezkontza Tasa Espezifikoa (ETE)
- Ezkontza Indize Sintetikoa (EIS)
- Ezkontzako batez besteko adina (\bar{x} ezk.)

Ezkontza Tasa Gordina

- Ezkontza Tasa Gordina: t urtean gertatu diren ezkontzen kopurua zati urte erdiko populazioa.

$$ETG_t = \frac{E_t}{P_{t/06/30}} \times 1000$$

- E_t : t urtean izandako ezkontzak
- $P_{t/06/30}$: epealdi erdiko populazioa

Ezkontza Tasa Orokorra

- Ezkontza Tasa Orokorra: t urtean gertatu diren ezkontzen kopurua zati ezkondu ahal den populazioa (Espainian, 15 urte bete duena).

$$ETO_t = \frac{E_t}{P_{t/06/30, >15}} \times 1000$$

- E_t : t urtean izandako ezkontzak
- $P_{>15, t/06/30}$: ezkondu ahal den epealdi erdiko populazio

Ezkontza Tasa Espezifikoa

- Ezkontza Tasa Espezifikoa: adin batekin (x) (eta sexu batekin, s), t urtean gertatu diren ezkontzak zati adin horrekin dagoen populazioa.

$$ETE_{t,x,s} = \frac{E_{t,x,s}}{P_{t/06/30,x,s}} \times 1000$$

- $E_{t,x,s}$: t urtean x adinarekin izandako ezkontzak
- $P_{t/06/30,x}$: x adinarekin dagoen epealdi erdiko populazio

Ezkontza Indize Sintetikoa

- Ezkontza Indize Sintetikoa: kohorte hipotetiko batek bere bizitza-aldia bukatzean izango lukeen ezkontza-kopurua adierazten du. Adinkako (edo sexuka) Ezkontza Tasa Espezifikoen batuketa atera da.

$$EIS_{t,x,s} = \frac{\sum ETE_{t,x,s}}{1000}$$

- $E_{x,t,s}$: t urtean x adinarekin izandako ezkontzak
- $P_{x,t/06/30}$: x adinarekin dagoen epealdi erdiko populazio

Ezkontzako batez besteko adina

- Ezkontzako batez besteko adina: adin bakoitzean ezkontzen diren kopurua bider adina hori (sexua ere kontuan hartu ahal dugu); Batukari hori zatitzen da ezkontideen kopuru osoaz.

$$\bar{a} \text{ ez}k_{t,s} = \frac{\sum \left(x + \frac{n}{2} \right) \times ETE_{t,x,s}}{\sum ETE_{t,x,s}}$$

Non $\left(x + \frac{n}{2} \right)$ adin-tarte bakoitzeko batez besteko balioa da

6.2- Ezkontzen eragileak eta ondorioak

- Ezkontzengan eragin duten funtsezko eragileak:
 - Biztanleriaren sexu-adinkako osaera.
 - Ikasketen maila.
 - Lan munduaren egoera.
 - Etxebizitzen merkatua.
 - Gizartearen konbentzionalismoak.
- Ezkontzen ondorio demografikoak
 - Lotura estua dauka ugalkortasunarekin.